

DIRU ITURRIAK



Pardelentzako txintxeta saltzeko 2 lote egingo ditugu, baita txintxeta bakarka salduko dugu:

1. **LOTEA: 192ko pardel kutxa + txintxeta =70 Euro**
2. **LOTEA: 192ko pardel kutxa + 192 pegatina = 40 Euro**

Txintxeta bakarrik = 50 Euro

30 Pegatinak= 3 Euro



Enpresaren diru sarrerak aktiboaren salmentaren bitartez jasotzen dira. Gure produktuaren prezioa dinamikoa izango da, enpresaren egoera txarra baldin bada eta ez baldin baditugu txintxeta asko saltzen prezioa jaitsiko dugu, baina nahiz eta enpresaren egoera oso ona izan eta txip asko saldu, izango duen prezio maximoa hasieran jarritakoa izango da

Gure produktua aurrera eramateko partaide bakoitzak 600€ jarriko genituzke, 5 partaide garenez, guztira 3.000€ izango genituzke, horrela erantzukizun mugatuko sozietate bat sortuko dugu. Beraz, Kutxa banketxeari eskatuko genioke mailegu bat 7.000€-koa gure proiektua aurre eraman ahal izateko eta aurretik aurreztua daukagun dirua erabiliko genuke. Hau guztiarekin 10.000€ izango genituzke gure produktua aurrera eraman ahal izateko inolako trabarik gabe. Kontuan izan behar dugu, gastu asko izango ditugula; lokal baten alokairua, lokalaren elektrizitatea, wi-fi, txintxetak... Udaletxearen eta Lanbide euskal zerbitzuaren partetik laguntza eskuratuko ditugu inbertsioekin, gure proiektua gizartearen hobekuntza



bermatzen duelako. Gure finantzaketa lortuko dugu txintxaren salmentarekin. Kontuan hartuta gaur egun teknologia oso erabilgarria bihurtu dela jende guztientzat, gure produktua erabiltzeko aplikazioa arrakasta handia izango duela uste dugu.

Gaur egun bizi garen sozietatean, eta hainbeste erabiltzen den teknologiaren jakintzarekin, gure produktuak arrakasta izango du.

Ateratzen dugun lehenengo urtean, 1. loteko 800 unitate salduko ditugu. 2. loteko 500 unitate salduko ditugu. Azkenik txintxeta bakarrik 600 unitate salduko ditugu eta pegatinak bakarrik 900 unitate.

Guzti honekin 133.000 euroko diru sarrerak izango genituzke.